



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Fronte zabalaz eta herri fronteaz

EUSKAL HERRIAN maiz entzuten ari gara “fronte zabala” terminoa. Katalunian “herri fronteaz” mintzo dira bestelako formulazio batekin: herri hautagaitza zerrenda. Lehenengoa koalizio batek dituen gogo eta helburu politikoen harira agertu da; bigarrena aldiz, herrialde baten askapen prozesuaren eztabaida erdian dago.

EH Bilduk fronte zabala terminoa erabiltzen du erreferente bezala, Uruguai kasuak duen prentsa onarengatik eta alderdi aurrerakoi desberdinen arteko aliantza sendoa delako. Zenbait herrialdeetan horrelako esperimenduek arrakasta lortu dute, sozialdemokraziaren ezkerrean dauden indar politikoak gobernuetan jartzeko. Hori EAEko errealtatera ekarriko bagenu, EH Bildu Eusko Jaurlaritzara ailegatzea esan nahiko luke. Kataluniako kasua ordea, bestelakoa da. Hauteskunde plebiszitarioak egin nahi dituzte eta horrelako kasu historikoetan, plebiszitu izaera berresteko eta gehiengo luzez irabazteko, herri fronte hautagaitzak osatu izan dira.

emaileak fronte zabalari eta hau osatzen duten beste edozein alderdiri (komunistak, sozialistak...) botoa eman diezaioke aldi berean. Bestalde, hauteskunde presidentzialetan legez derrigortuta daude *primaria* irekiak egitera. Zaila egiten zaigu EH Bildu bezalako koalizio bat primariak antolatzen imajinatzea, baina, dudarik gabe, ezinezkoa dena da koalizioari botoa ematea eta aldi berean hau osatzen duten alderdiei azpi-botoa ematea. Horrez gain, Euskal Herrian ez dugu Eskoziako egoera bera: ezker-eskuin eta zentro-periferia ardatzak ia era perfektuan teilakatzen dira, hau da, gero eta ezkertiaragoa izan, orduan eta eskoziar soberania are zaleagoa. Gurean badugu horrelako zerbait baina teilakatze perfektutik urrun gaude, hizkuntzek eta urrun dauden nortasun nazionalek zatitzen gaituzte. Ondorioz, sentsibilitate politikoak gehiago dira eta horien arteko metaketa burutzea zailagoa da: ardatz batean adostasuna dena bestean desadostasuna da.

Katalunian herri frontearen posibilitatearekin antzeko zeozer gertatzen da. Baltikoko herrialdeetan gehiengo edo proportzionaltasun gutxiko hauteskunde sistemak erabili zituzten beraien hauteskunde plebiszitarioetan. Ez da hori ezberdintasun bakarra, Katalunian bi borroka ardatz daude. Independentziaren aldeko babes guztia jasotzeko herri frontea bada go eta badaude honen aurkako lehian aukera politiko desberdinak. Independentziaren aldeko batek ezker-eskuin ardatza lehenesten badu, nekez bozkatuko luke herri frontearen alde. Errealitate horri aurre egiteko, Kataluniako independentistek garbi dute sistema proportzionalan hobe dela gutxienez ezker-eskuin ardatzean bi edo hiru sentsibilitate independentista egotea, hautesleen ikuskera desberdinetara hobeto egokitzeko. Era berean, EAEn fronte zabala baino, sozialdemokraziatik ezkererago dagoen gobernu osatzeko erabilgarriagoa izan daiteke sentsibilitate ideologiko desberdinak ordezkatzeko dituen hauteskundeen ostean eratutako gobernu koalizioa, hain zuzen ere Nafarroan gertatuko den bezala. ■

Uruguain munduko hauteskunde sistema konplexuenetako bat dute, horri esker parlamenturako hauteskundeetan boto emaileak fronte zabalari eta hau osatzen duten beste edozein alderdiri botoa eman diezaioke aldi berean (...). Hemen zaila egiten zaigu EH Bildu bezalako koalizio bat primariak antolatzen imajinatzea

Bi kasuetan gehiengo argiak lortu nahi dira hauteskontzietan, baina hau ez da beti posible indar metaketen bitartez. Katalunian horretaz jabetu dira, izan ere, logika horrek funtzionatzeko probabilitate handia du, baldin eta borroka politikoa ardatz bakarrean antolatzen bada eta gehiengo osoko edo proportzionaltasun gutxiko hauteskunde sisteman lehiatzen bada. Uruguain munduko hauteskunde sistema konplexuenetako bat dute, horri esker parlamenturako hauteskundeetan boto